

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

187n. Zenbakia Uztaila/Dagonilla
1994



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILE



PLENTZIA

UDALEKU
EGOKIA

PEIO ADARKA LIBURUTIK TXATALKA

Zazpigarren Autua

NAZIONAL-ERDIRAKOIA ETA SASI-AURRERA-KOIA DAN MARIO JAURTEGI **POLITIKAGIZO-NA** ETA **IBAIEZKERRAKOIA** DAN **PEIO ADARKA MEATZARIREN ARTEKOA**.

(Txatal au asita dagoan alkarrizketearen zatitxu bat baino ez da, amaierarik igarten ez jakola. Barriketa au, Kaikulandiako uriburuetatik baten egiten daben adierazpen askatasunaren aldeko agerraldi eskergan jaso da.)

M.J. - Kaikulandiako politikagintzan aro barri baten sartuak gara, arean da, POSTNAZIONALISMOAN.

Onek gure erriarentzako garrantzi aundia dauka, Kaikulandiako abertzalegoak nagusitasuna izateari itzi bear izango deusolako, bai autarki kopuruz bai ideologiaz. Beraz, erriarenganako bere eragina gitxiagotuz joango da.

Bere iturburuko urek aspaldiotan argiro beera egin dabela, abertzaletasuna izan dan erri onetako ardatza, bere errotarriaren lorrari eutsi ezinik, itzulika geroago eta motelago dabilela, egunen baten bein betiko geldituta lotuko dalakoan nago. Bere mezu kaltegarri, bazterzaile eta naastailearen eragina indarrik barik agortu arte.

Aro barri onetan laterriko errien alkartasuna eta gizarte onen benetako integrazinoa izango dira zutoin eta nagusi. Bakea eta aurrerapena alderdi demokratiko guztien itunari esker bere ondoriorik edo lorpenik nagusienak izango dira eta gogorkeria ezetsiz, erriak, indarrean dagoan laterriko legezketasuna onartu egingo dau.

P.A. - Zure berbek Goebbels zalakoaren berbakerea gogora dakarste.

Menperatzaileak menperatuagazko berba labanak beste teko aurpegi bikoak erabili daroaz beti. Menperatzaileak, bere demokraziaren izenean, ez deusoz besteari bere askatasunerako gitxieneko eskubideak inoiz ezagutuko. Azkeneko oneri, onek olan eskatu ezker, itsukeria, itxikeria eta eretxi-zabaltasunik eza baino ez deusoz egotziko. Jakina, menperatuagazko alkartasunik daitekenik inondik inora be ez jako otuko, gurata. Zelan otuko jako, bada, berbera egoera lazgarri orren sorburua bada? Eginak egilea dau leenengo, egileak dakar egitea!

Erri menderatuak menderatzaileek zapalduta dagozan artean beti egongo da nazionalismoa, Kaikulandian abertzaletasuna dagoan lez. Kaikulandiarrek, laterri orrek eurrei gizaldietan atzera odolez, indarrez, su ta garrez kendu eta gizaldietan zear ukatutako jatorrizko askatasuna, Demokrazia birreskuratu arte ez dabe inongo erarik ez eta biderik oker edo erabilezintzat emongo. Zelan izango li-

tzake beste era batera, bada, euren jatorrizko Demokrazia nai ta ez ukatzen badeutsee?

Demokraziari gagokozanez, menperatzaileak aitatu oi dauan demokrazia ori eta euren kaikulandiarrei ostutakoa ez dira bat, ez eta gitxiago be.

Leenengoa kaikulandiarrei, euren alan gura ta gura ez, indarrez ezarita dago, kaikulandiarrek beste aukerarik autatzeko ateak itxita ebezalako, eskuak lotuta egozala, euren etorkizuna beste batzuen eskuetan ebasten zala ikusi bear izan eben. Erbesteko demokrazia, arrotza, euri begirune txikerrenik ez deusena. Zelan, bada, pozik egongo?

Beste aldetik, euri egoken su ta abarrez, indarkeriaz kendutako Demokrazia, barriz, inondik inora bireskuratzeko aukerarik ez. Ez! Indarrean dagoan laterriko legezketasunak Kaikulandian dirauan artean, ez beintzat!

Zuk, Kaikulandian zagozan laterriko politikari orrek, paratxutista, jauslari orrek aitatu oi dozuz aitatu zeuen demokrazia, munduko pitxienik baliotsuena izango balitz lez, eta au berau onartzen daben alderdiak, onegaitik demokrata biurtzen dozuzala. Baina kaikulandiarrok zeuen demokrazia zapaltzaile ori, euren gitxieneko baina bearezko askatasunaren ukatzaile dan ori onartu ez eta ezesten dabenok, euren asabengandik jasotako Demokrazia, zeuenaren aurrez-aurre ipinten deusuee. Alkartuezinak, osorik ezbardinak diralako!

Zuk biotzez eta egitez ordezkaten dozun laterri ori erruduna da. Erri txikerrago eta makalagoa bere gurariaren aurka azpiratu, zapaldu eta jazartzen dauan zuk ordezkaten dozuna erruduna da. Erri orren kulturea, ekanduak eta izkuntzea galazo, jazartu eta il eragiteagaitik, laterri ori erruduna da. Bere askatasuna ta eskubideak -NBEK (UNOK) munduko erri guztiei eskubide orreek onartzen deusezan bitartean- ez ezagutzeagaitik eta olan egiteko ez usterik ez asmorik izateagaitik, erruduna da. Erri onen askatasun gogo-gurariak dirala eta, bere seme-alabak erail eta espetxeratzeagaitik, erruduna da. Gizaldietako garbiketa etniko-fisikoa, "ethnic-celansinga" burutzeagaitik, laterri ori erruduna da.

Zeinek, nork ordainduko deusoz, bada, Kaikulandiako erri gizagaixo oneri, beragazko egindako txarkeria eta irainak? Nork zurituko, jagokozan zorrak? Erantzunik?

Eta zu, laterri orren ordezkari zaran ori eta zugaz batera zuri zeuri eta zure laterri orren jokoan bizi diran txakur mizketiok, munduaren aurrean zuek be zeuek zaree errudunak. Erantzunkizuna zeuei jagotzue, zeuena da eta!

Iñaki Martiartu
1994.eko epailaren 6an

ALBISTARIAK

LAN-BIDE GARRANTZITSUA

Albistari, kasetari, izparlari edo barri-emoillearen izena dana dala, izana gizartean garrantzi handia daukan gauzea da. Gaurko munduan sinistu-eziñeko indarra da arlo askotan albistariak daukena.

Albisteak edo barriak emotea uts-utsean ba'litz, bear ba'da, ez litzake ain garrantzitsua izango, baiña barriakaz batera izparlariaren eritxiak sartzen dira eta eritxiakaz batera gizarteko jokabide bizi bat joaten da geienetan.

Beste alde batetik, irakurleak eurak be ez dira izaten beti aztertzaileak, errezegei sinisten dabez barriak eta arazoa sakondu barik onartzen dabez irakurten dabezan eritxiak.

Eta kasetari esaten dogunean ez dira izen orren barruan sartzen aldizkarien eta izparringien idazleak beste barik, or dagoz, baita, irratietan eta telebistetan lan egiten dabenak. Or, idatziaren gaiñera irudiaren indar handia sartzen da eta telebistaren aurrean umeak naiz gazteak naiz elduak ordu asko igaroten dabez.

Uts egiteko bildur barik esan geinke ba, gaur gizartean zuzendariak izparlariak dirala, tamalez. Norberaren zentzuna ta nortasuna nagusi izan-bearrean, izparlariaren eritxiak nagusitzen dira gizartean.

ARRISKUAK

Albistarien lana, garrantzi handikoa dalako, arrisku handikoa be bada: gizartea euren erara erabilli nai daben jauntxuak ezin dabe begi onez ikusi sarritan euren aurka letorken kasetari-lana. Orregaitik gogorkerizko agintaritzan dagoan tokietan ez dira begi onez ikusiak izparlariak, egoerea salatu eta agintaritzan bera arriskuan jarteko naikoa diralako.

Toki askotan izan dira aurrean erabilliak albistariak, sarritan izan dabez erasoak eta bein baiño sarriago il be egin dabez, edo beintzat barriak artzeko daukezan tramankuluak kendu eta erbesteratu.

Egia esan, euren eskubideak ba-daukez lege-aldetik, baiña une batzutan legeak errezegei zapaltzen dira eta lege-zapaltzaile onek ez dira izaten bear dan leze zigortuak.

IKUSPEGIAK

Albistariak bere barruan be ba-daukaz arrisku batzuk, ta aundiena auxe izan leiteke: Barriak argi ta garbi, diran leze emon-bearrean, norberaren eritxiakaz eta ikuspegiagaz nastauta emotea. Eta au bear ba-da alboratu-eziñeko arriskua da: "Artzen dana bakoitzak bere erara artzen dau" esan eban antxiñako jakin-zaleak eta albisteak be beti artzen dira, geiago edo gitxiago, norberaren erara.

Edozelan be izparlari batzuk onetan lotsa gitxikoak izaten dira ta gauzak diran leze esateko alegindu-bearrean, eritxia irakurleak artzeko itzi bearrean, eurak agertzen dabe argi ta garbi. Esaterako politika bide batteko irizpidea edo ekonomi-girokoa edo erlejiño-arlokoa.

Jokabide ori eta albisteak norberaren erara erabiltea, "manipulatzea" alkarrengandik urrean dagozan jokabide bi dira.

GURE IKUSPEGIA

Albiste-bideak barriak euren erara erabilliaz kalte handia egiten dautsoe, esaterako gure Euskalerriri. Izan be, zelako irudia agertzen da munduaren aurrean gure erriari begira? Alkar ilten dabillen erria, bide ta kale guztiak izkilluz jantzita daukazan eri, a agertzen da. Eta orrek kalte handia egiten dasku.

Errez zabaldu zan gudaldian Gernika gure gudariak erre ebela iñoan barria. Gatzago izan zan oker ori eta ondorenak bideratzea.

Orregaitik egin gura dogu gure aldizkari onetan eta irakurleentzat albisteak gure ikuspegititk emoteko era bat. Eta gaiñera estutasunean, larritasunean, beti bizi ezin garan ezker, lan ori egiteko idazleak barre egiteko bidea artzen dau.

Lan ori zabalago ta sakonago be egin bear litzake, zabaltasun geiago dauken albiste-bideetan.

ALBISTEAK

ARGI-UNE IZPITXUAK

IRAKURLEAI OARRA

Irakurleok: Ona emen gure aldizkarian gaur asten dogun arlo barri bat. Urteak dira olako zerbait gura genduala eta ez genduan inor aurkitzen lan au egin nai ebanik. Orain eskatu be egin berik agertu jaku laguntzaille on bat.

Zer agertuko dan arlo onetan?

Izpar-ingietan irakurritako albisteak. Ori baiño ez ba litz, alperreko gauzea litzakela dirudi. Baiña barriak beti izaten dabe euskaldun baten irakurketa berezia, eta auxe da gure idazleak egingo dauana. Gauza egokia benetan.

Baiña zeozer geiago be izango da arlo onetan ikusten dana: Alkar-izketa ugaria eta umore onezkoa. Ikuspegi au bearrezkoa dogu gure aldi onetan.

Oraingo onetan lana luzeegia dala esango dau irakurleren batek. Urrengoetan laburragoa izango da. Udaran-tza urreratzen garanean idaz-lanak urriago etorten dira eta orregaitik luzetu dogu gaur arlo au.

Eta aukera au artzen dogu gure irakurleai dei egiteko. Zelan edo alan beteten dogu aldizkaria baiña aldizkari au txukuna ta atsegingarria, egokia ta onuratsua izatea nai ba'dogu, idaz-lanetan aukera geiago bear dogu.

Eskerrik beroenak gure idazleari. Iraunkortasunaz jarraitu dagiala eskatzen dautsagu arren.

Udako oporraldi atsegiña izan dagizuela, opa dautzuegu.

IDAZKOLAKOAK

BARTOLO ARROPAIN'GO

Txotxo, nundik atara dok izen ori?

I lekeitiarra izan eta ez dakik Arropain nun dagoenh?

Emen berton dagoen auzo bat da; baña, euk alderantziz ipiñi dok: Arropain'go Bartolo bearke leuke eta ez Bartolo Arropain'go.

Deba'n bazegok orain bosteun urteko kanta bat Milia Lastur'ko izena duena eta agertzen dira beste bi izen ere era orretara kanta orretan.

"Dakixenak bakixela". Neuk e badakit bazala Anes Lazkau'ko bat be eta Pedro Berrondo'k Don Quijote de la Mancha euskeratu ebanian Kixote Mantxa'ko ipiñi eutsola izenburu. Baña, onek ez dau ondo dagoenik esan nai.

Ez dizut esango ondo ala gaizki dagoen; badauka, orde, alako sorginker bat...

"Azak ederrak". Ori erantzuna ba'dok ni alkate nok.

Beste arrazoi bat ipiñiko diat: Bartolo Arropain'go Lekeitio'ko kanta zaar batetik atera det.

Nik, likittarra izan arren, ez dot ezagututen orrelako kantarik Lekitto'n.

Ba, nik bai. Orain 70 urte ikasi nuen Lekeitio'ko kaleetan eta nere amama Pillipa asarratu egiten zan kanta ori entzunda eta ortik susmoa artu nion, geure familiakoak izango ziralta or agertzen diranak. Auxe zan kantia:

Si, si

Andra Mariñasi

No, no, no, no

Bartolo Arropain'go

Ua, ua

Erramon Bolua

Ta aren alaba

Leona trokua.

Gu, aurtzaroan, Gipuzkoa'tik Lekeitio'ra joaten giñan udarako oporretara eta an Andramariñasinekuak esaten ziguten. Orregaitik eta amamaren asarretik ateratzen det emakume ori aren ama izango zala. Eta, Bartolo Arropain'go, amamaren aita.

Alan be, txarto dago ori orlan esanda.

Ba, erriaren kantak dira, bai au eta baita Milia Lastur'koarena ere. Eta, Euskera erriak egin zuan eta ez Euskaltzaindiak eta ez Euskerazaintzak. Orrek Batua egin dabe.

Euskerazaintzak ez, arranoa. Guk erriaren bideak zaindu nai ditugu.

INKULTURARIZAZIOA

Eta, ori zer dok?

Aspaldiko urte auetan, bai Afrika'n eta bai Ameriketara batez ere, ari dira esanez Elizak errien kulturetan mamitu bear duela.

Ba, amen beti ibilli gara erri euskaldunaren kultura agerpenekin bat eginda...

Euskaldunak Elizan euskaldun iraundu du: Illetako zenbait oitura zaar, Gabon eta San Juaneko gora-beerak, izkeraren arazoan eta abar. Baña, gaurko egunez gauzatxo bat ikusten det orrekin berezia dutenen artean. Errialde bakoitzak badu bere euskera, ori erabilli bear ko du Elizak, erri bakoitzean mamitu nai ba' du.

Zer, ba? Geu Afrika baño gitxiago gara ala? Afrika'rako balio dabenak ez al dau guretzako balio, ala?



LENENGO JAUNARTZEAK

Orrilla edo Maiatza osoan Lenengo Jaunartzeak izan dira baztarretan.

Nork baño nork jantzi obeak eramatea, orixe dok Lenengo Jaunartzea.

Eta, bazkariak? Boden eta ezkontzen parera eldu dira.



Au dok atarramentua, au. Nork geldituko dau aldatz-beera doan gurdie? Famili askorentzako porrota da. Merkiena eliza; ez dau ezer kobratzen eta. Baña, beste gauza guztiak?

Ez dira jantziak bakarrik; orrekin datozen beste ptxiak eta egun orretako erregaliak. Ainbeste gauzeekin umeak txorabiatu eta zer egin duten ere konturatu gabe gelditzen dira.

Lengo lege zaarrera joan biariko dogu berriro.

Huesca'ko Gotzai Javier Os s naparra trumoiak jontzen asita dago: Diruetan zabaltzen dan ugaritasuna ez omen da aundi-nai eta arrotasunaren agerpen bat besterik...

Eta, senitartekoek argazki-makinak eskuetan ataraten daben naaspilla elizan? Geuk egin genduen, egin bear ko: Domeketako jakia ipiñi eta Mezua ondoren apaizaren etxera, txikolatia artzera. Orrekin amaitu.

Bai, baña badakik orrelakoetan zer esaten dan; Baikoitzak bere astua nai duen arbolan lotzen dauela.

ALBISTEAK

Mendian lotzen ba'dau bai; eta, kalian lotzen ba' dau?

Errioxa'ko erriska batean nengoela, lengusin lekeitiar bat agertu zan ara eta kale estu batean, galdetu dio ango neskato bateri: "Emen lotuta dagoen zaldi onek ostikararik jotzen al du?". "Urdea, bezin urde ori, au mandoa da eta ez zaldia". Eta, beste gabe, alde egin zion aldamenetik.

Eta, zer egin zuan berak?

Aspitik pasau.

Ba, amen, Lekitto'n, goizero baserritar andre batek, bere astarra Arranegi'ko lenengo zenbakietan, estueanean, lotze eban eta Arranegiko Zabaldunetik etorren egunero, kalian gora, abade dotore bat, bere kapa zabal lepo-inguruan bilduta. Aspertu zan asto zaar ura an ikusten traban eta goiz batean aizto txiki bategaz, sokia ebagi eutson. An dabil ondiño baserritarra astobilla.

MARTIRI BERRIAK.

Ruanda'ko Gotzai bat eta bere apaiz lagunak bizirik lurperatu dituzte termite lurpil batean, txindurrien janari.

Zenbat eta erriak atzeratuago, ta biotza gogorrago. Ori dok asmakizuna, ori! Martiriak badozak oraindiño ere.

Bai, ez da eriotz ederra izango.

Entzunda daukot, orain Afrika'ko Gotzaien Sinodoa egitean, Isidoro Bakanja, 20 urteko mutilla santutuko dauala Aita Santuak. Bere nagusiak, esklabua zan, makilka il zuela, kristau egin zalako, eta kristautasuna laguneren artean zabaltzen ebalako. Belgika'ko nagusiak ez zuten nai kristaurik, euren buruen jabe egingo ziren bildurrez. Obe zala tonto-tonto edukitzia, eta mutillak, kristau egin ondoren, kristautasuna zabaltzen ari zan.

Nagusientzako obe zan tonto-tonto edukitzia abereen antzera zamatzeko.

Berreun baño makilkada geiago artunda gero iltzan kottarue "Barkatzen deutset" esanez. Martirien odolak ez dau etenik.

EZKONTZAK AFRIKA'N.

Iru eratan batera ezkontzen omen dira Africa'ko lurraldeetan, Erromako Sinodoaren Gotzaiek dietenez: Bertako era zaarrera, Epaitegian eta Elizan.

Ijituek be badaukie ezkontzeko modue.



Ba. orixe. Lenengo euren modu zaarrera, eta gero gerokoak.

Baña, an poligamia dago eta senar bakoitzak emazte asko.

Ori da Afrikako Eleizaren arazo larri bat eta bestea, gazteak alkarrekin bizi dirala ezkondu aurretik.

Amen be, edozeñek egiten dau ori.


Kristau jarrai nai dutenek, ez.

Gotzai afrikarrek ori diño.

Zer?

Ori ez dabiela europako kristiñauk entenditzen eta Afrika'n ez dabe entenditzen nola Europa'ko kristauk goserik iltzen lagatzen dabezen Afrika' ko aurrak.

SAN VICENTE'KO ELIZAN KANPAIA ARRAPATU (DEIA-1994-IV-28)



Ori, Bartolo, sinisgaitza dok.

Sinisgaitza, baño egia. 230 kiloko kanpaia, kanpan-torretik lurrera jetxita zegoen, konponketa batzuk Palentzia' n egiteko. Eta, andik ospa egin dik.

Ori dok, ori ederra, orrelako kanpai zatia ostutzen dabenak, ostuko leuke beste zer-edo-zer geiago ere.

Auskalo nun gorde duten. Ezin izango dute alako aura abestu. Onela dio Gipuzkoa'ko trikitixa batek:

Debajo de la torre
de la campana (bis)
esta matando pulgas
la sacristana,
ai, ai, ai la sacristana
debajo de la torre
de la campana...

Oiek erderazko itzak dozak; baña, mamia euskaldun-euskalduna. Ori ez dau erdaldun batek egin.

Ez, motel, ori idatzi duenak, euskeraz badaki. Orain alderantziz gertatzen da zenbaitzuekin, euskerazko itzak eta mamia erdalduna eta orrek ulertzeko erderaz jakin bear.

MIXIOLARI EUSKALDUNAK ETXEAN (DEIA-1994-IV-29)

Gaur eldu dira Sondika'ra Ruanda'n egozan lau mixiolari apaiz giputzak Isidro Uzkudun, Leonardo Esnaola, Juan Kruz Jaristi, Jo9se Manuel Amunarriz eta Manuel Segundo Aizpuru.

Eutsi nai ziotn bertan; baña, auzarta izan bear du, zuurtasuna galtzeke.

Eta zuurtasunak ekarri jozak etxera, beuren naiaren aurka.

Armak saldu, erri aberatsen era berriak erakutsi pobrei, auzoen arteko tribuen artean burrukak piztu, betirako Afrika menpean edukitzeko...

Zer diok iraultza zaleen artetik etorri al aiz?

Ez nok ortik etorri; ori esan dabenek, Erroma'n bilduta dagozen 250 Gotzai dozak eta ez neu.

Bai, bai, arrazoi dek. Sinodo ori eurok Afrika-n egin nai zuen; baña, "donde hay patron no manda marinero" eta guztien Patroia Erroma'n dago. Bien artean txaboletan bizi bearrean, jauregietan biziko dira.

ROLDAN'ERI JUEZAK PASAPORTEA KENDU (DEIA-1994-IV-28)

Besteei egiña norberak jasan bear.

Makiña bat abade eta abade ez diranei kendu deutse eta orain berau preso; baña, au ez dok eltxo txikiña eta eskapako dau.

Au mando-euli galanta dek eta apurtuko ditu sare guztiak.

Galanta ean dok ala galante?

Maria Galante esaten diote Ameriketara zear ibillitako itxas-ontziari.

Baña, a Maria Galante zan eta ez galante.

Euskeraz ez dakienak euskal itzari erderazko tanke-
ra ematen dio.

Eta, Galanta Galante biurtzen dau.

Donostia'n badago Pico del Loro esaten dioten aitz bat ondartzan; baña Loroeko aitz da bere izenez. Eurdaldunek Lorepeko zer dan ez dakite, eta Pico del Loro bai. Orrekin gelditu dira bai erdaldunak eta bai euskaldunak.

Bizkaia' n ere adoguz orrelakoxiak: Larrañeta esan biarrian, La Reineta esan eta kito.

Leitio'n be or daukazue Portal de Atea. Atea esan ezkerero. Portal ez da bear.

Bai gixona, euskera galtzen daben erriak, beuren euskal itzeri erderazko kutsua emoten dautsee. Entzunda daukot Araba'ko Lautaran "Tengo una perra" esaten, "alperra" dabela esateko.

Geure aritik aldendu gera. RRoldan gendu ! n itz-bide.

Orrek dau diru-gosea, orrek, itxasapo() batek baño andiangoa.

Zer itxasapo?


Badakizu txamarta zer dan?

Adokin batekin eta lau egurrez egiten dan aingura bat.

Ba Lekittoko serenuari, kabratan joan eta txamarta jasotzen asterakoan, itxasapo batek eldu eutson eta atoian ekarri eban porturaño.

Baña, Lekeitio'n serenorik ez ba'dago...

Orain ez, orduan bai. Eta neuk ikusi neban, Joxe Pelix'en tabernan itxasapo a, mai-gaña beteten ebal. Eta, Todan'ek arek baño gose geiago izan dau lapurretan egiteko.



AMERIKETAKO ZALDIAK (DEIA-1994-V-2)

Peru'ko Mazo-Cruz deritzan kobe-
bean 10.000 urteko
zaldi-marrazkiak
agertu dira.

Ala ba'da, ez
ebazan Peru'ra Pi-
zarro 'k eruan eta
Hernan Cort s'ek
bee ez Mexico'ra.

Bai zera. Andik onera etorriak omen dira. 500.000 urteko ezurrak billatu dituzte Ipar-aldeko Ameriketan eta Bering itxas-ertzetik Asia'ra etorri omen ziran eta andik Arabia'ra. Eta emendik, España'ra. España'rek eramane zituzten arabiar zaldiak Ameriketara.

Arraxua! Eta Euskalerriko Pottokak?

Ille ugaridun zalditxo gorri oiek geure mendietan ziran orain 16.000 urte eta aien irudiak daude geure koba zarretan; batez ere, Ekain'en.

Oraindik be ikusten dozak orren antzekoak geure mendi-goienetan.

GERNIKA SUTAN, ITALIARRAK TARTEAN (DEIA-1994-V-2)

Oraintxen bete dozak urteak Gernika erreebenetik.

Aspertu giñan entzuten zeñek erre zuan.

Ez dozu esango geutarreek erreabela, e?

Agirre'k eta bere gudarosteak erre zuela entzuten, ase giñan; eta, orain berriz esaten digute, Alemania bakarrik ez, baita Italia'ko Aviazione Legionaria'k ere parte artu zuela.

Nolan jakin dabe?

Militar-artxiboak iriki zituzten 1991-VII-24'ean eta an agertu da zelan jokatu bear zuten bonbardeoak egiteko.

Zelan, ba?

3.600 metrotik gora bota bear zituzten lergailluak, arañño iristen ez direlako antiaereoak.

Orrelako tresnarik ez an Gernika'n.

Ori ez zan arazoa. Aiek, eta alemanek, probaketak egin zituzten Gernikan, gero Europa'n ekiteko. Goien oietatik bota bear zituzten lergailluak zubitxo baten kontra.

Italianoek altura probaketan eta alemanek ler-gai-lluak eta su-gailluak... Gernika labe bat bihurturik.

Bai, "gezurra esan nuen Getari'n / eta ni baño lenago zan atarin". Nekez, baño, azkenik, egia nagusi.

GEUK ERE BERDIN (DEIA-1994-V-4)

Irakasle batek proba au egin dau bere ikasleekin: Galdetu deutse 15 urteko neskato eta mutillei, ia eurok Roldan'en tokian egon ba'lira, zer egingo leukien. Eta, badakizu zer erantzun daben?

Zer?

Bardin egingo leukiela.

Eta, ori zergaitik?

Emengo jainkoa Dirua dalako eta ederto bizitzeko. Dirua bear dalako.

Orretan ondo erantzun dute. Eurok arrazoi.

Arrazoi? Nundik, baño.

Zer erakusten dabe eskoletan? Zer erakusten dau Telebistak? Zer erakusten dau mundu guztiak? Arazoa ondo bizitzea dala, atsegin guztietan murgildurik eta orretarako Diru asko bear da. Emen beste konturik ez dago.

Jainkoa eta bere legeak erditik kendu ezker, zer gelditzen da? Badirudi arrazoi dezula. Goiko Nagusia kenduta, emen guardia zibillak gelditzen dira; baño, euren nagusia lapurretan asten ba'da, orduan zer?

FRANCO'REKIN OBETO (1994-V-10)

Sarri ari naiz Franco'rekin obeto giñala entzuten.

Ori esaten dauana ez da Franco'ren garai guztietan bizi izan.

Bai, baño Franco'rekin ez zan orrelako lapurkeririk egoten.

Egon, egoten ziran; bai ixillean ondo gorde ere. Redondela errian, Galizia'n oiola neurri oso eskasean zegoela, lau milloi litro falta izan ziran une bakar batean...

Eta, ori nola liteke?

Ori ez zan ixilleko dirua, bistan zegoen gauza bat baño; eta, alaz ere, galdu egin ziran eta iñork jakin ez, nun eta nola. Ori zan orduko garaia. Eta, Nagusiagaitik zeñek esan ezer?

Eta, euskerari buruz, zer?

Euskerari buruz, obe da ixilik egotea; orrelako eraso-aldirik ez du euskerak jaso sekulo sekulotan. Bi gauzatxo bitxi esango dizkizut, neroni testigu nintzala.

Esan, esan.

Egun gutxien barru gertatu ziran biak. Ona bat; Dognosti'tik Hernani'arako tranbia zaarra, soldaduz gañezka zijoan Loyola'ko kuarteletara. Euskeraz ari giñan geienok. Gure artean bi falanjista zijoazen eserita.

Zer ziran falanjista oiek?

"Falange", diktadura zaleko alderdi politiko bat zan eta gerratera alkandora urdiñez agertu ziran. Alaxe zeuden urdiñez jantzita eta gerriko ugalak beltzez. Euskeraz ari giñalako soldaduoak, biak batera, garraxi bizian, onela asi ziran kantari:

"Los separatistas vascos
no lo pueden remediar,
si se juntan tres o cuatro,
empiezan a rebuznar.

La cucaracha, la cucaracha
ya no puede caminar..."

Aientzako euskera asto-arrantza al zan, ba? Eta, zuek ixilik?

Pistolak gerrian zeuzkaten, guk berriz, mozketoiak kuartelean eta tiroka arteko ez zuten askoren bearrik.

Eta, bigarren gertakizuna?

"Rebajado de rancho" nengoen kuartelean, beste asoko bezela eta duro bat, ogorleko bat, ordaintzen neban (bost pezeta, baña zillazkeoak) egunero, iru otordu (gosaria, bazkaria eta aparria) eta oiagaitik.

Merkeago ezin.

Zillarrezko diru aundia zala duro bat, kontuan artu.

Bai, eta?

Eguerdi batean etxekoandrea negarrez topatu neban. Zer dezu? Esan nion. Ogei duro kendu didate multa, erantzun zidan. Zergaitik? Nere anaiakin euskeraz egin dedalako.

Orregaitik emon eutsen orrelako zigorra?

Illero ordaintzen neutson 30 durotik, 20'ko zigorra, kalean bere anaiakin euskeraz egin ebalako. Esan eiok orain amamari Franco'ren garaia okeak zirala!

QUEIPO DE LLANO GENERALA

EUSKARARZALEAK egiñiko Ipui-Sariketako 4'n. ipuiñean Queipo de Llano sartzen dozu onela esaten:

"A esos sacerdotes los voy a colgar del Arbol de Guernica"; baña, nor zan Queipo de Llano jeneral ori?

Mola, Iruña'ko Militarren Buru, Errepublikaren aurka jeiki zan Espaiñiako Ifarraldean; eta Queipo de Llano'k lan berbera egin zuan Egoaldean, Sevilla arturik. Franco bitarte orretan Afrika'n zebillen. Queipo'k Parte de Guerra ematen zuan gaueko amarretan. Eta orrelako Parte batean esan zuen esateko ori. Baña, ez zuen Sacerdotes itza esan, Sacerdotes baño.

Eta, zergaitik ipiñi dozu Sacerdotes?

Nik Cerdotes ipiñi neban, eta, irarkolan edo, usteko eben uts bat zala eta orregaitik Sa bat jarri zioten aurretik. Baña, berak ez zuen Sacerdotes esan, Cerdotes baidik.

Cerdotes esan eban abadeengatik? Eta, nun eukan euren Cruzada famosua?

Bai, ala da; baña, Zumarraga'ko txanburu zan Irigoien'dar Txomiñ'ek galdetzen zuen, Cruzada ori Cruz'etik ala Cruce'tik ote zetorren. Ez dira berdiñak Cruz eta Cruce.

Badirudi Cruzada a, Cruce'tik etorri zala.

Arrek orrelakoak esatea, ez da gauzarik txarrena.

Okerragorik ba'al da ala?

Ori esan zuelako, giputz apaiz batek zorionak bialdu zizkion Queipo'ri.

Bai?

Bai. Bizkai'ko kardu eder bat eman zien sari. Gero beste bat Gipuzkoa'n. Baña, badakizu zer esaten zuten ango erritarrak?

Zer?

Goziki asko eta arrautza gutxiLiin egindako tartapilla zala.

Arraxua! Bai esan be!

PRAKA LUZIAK

Orain edozeñek eramaten ditu praka luzeak; garai batean, ordea, gizonzkoenak ziran praka luzeak eta umeenak, berriz, praka motxak.

Bai, orduan ala zan. Ba al dakizu Pedrotxo'ri zer gertatu jakon, lengo egunean?

Nor dan be ez dakit.

Gure auzoko Pedrotxo'k praka luziak nai ebazan. "Lenengo gizondu egin biar dozu" esan eutsen aitak. Egun aietan etxean, lor-ontzi eder bat, apurtu eban norbaitek. -Nok apurtu dau lor-ontzia? Galdetu eban aitak. Mirentxu gorri-gorri para zan. -Neuk! Erantzuen eban Pedrotxo'k. Eta amak aitari: -Praka luziak erosi bearko doguz Pedrotxo'rentzat, gaur gizondu da-ta.

ALBISTEAK

BILBAO ALA BILBO

Or dabilta batzuek Bilbao dala, eta Euskalzaindiak babestutako beste berri-zale batzuek, Bilbo dala, erriak ala esaten duelako. Zuk zer derizkiozu?

Bilbao dala.

Noiztik da Bilbao?

Dokumentu zaarretan Vilvao agertzen da.

Nun?

Esate baterako, Belanger Kanada'ko idazleak, badauka Euskaldunek an egin eben arrantzen berri ematen daben, frantzesez idatzitako liburua, eta 101'garren orrialdean onela diño dokumentu baten akaberan:

"Su Alcalde y Secretario general. En la villa de Vilvao a 28 de agosto de 1596".

Bilbao ala Vilvao esan, berdin aoskatzen ba'dogu, zertan dabilta jakintsu orrek, Bilbo dala esaten?

Or gertatzen da Galdakano, Lazkano eta beste aintabatekin Iruña'ko agiritegian onela dago idatzita 1331'ean: "Quod navarri expugnauerant fortalezam de Lazcano". Beraz, Lazkano izan da eta ez Lazkao. Eta, erriarena ipiñi nai bladın ba'dute, ipiñi dezatela Lazkau, orrelaxen esaten bait du erriak. Erriak egiten dituen zenbait aoskatzeko okerkerirekin batera datoz; erriaren euskerarekin ez, ordea.

Ba, Galdakao berdın da. Lekitto'n bada kanta zaar bat onela diñoa:

Mari Galdakaño sospaletan

sospalak batunda

kaka albarketan.

Ez dau esaten Galdakao, Galdakaño, baizik. Ori zan Lekitto'ko erriak esaten ebana.

Erriaren esanak artzen dituzte nai dutenean eta ez beti.

GABONETAKO ARBOLA

Auzoko Markeliñe'k zer egin dauan badakizu?

Etxetik alde egin eta Kaspar Zantarrekin eskondu.

Ez al da zaartxua gizon ori orrelako neskatilla gaztiarekin eskontzeko?

Ezkondu edo alkarregaz bizi. Baña, ez dabe asko iraun.

Zer dala-ta?

A ez omen da gizona. Gabonetako Arbolia baño.

Zer dauko Gabonetako Arboliak?

Adornotarako bolatxuak.

Jesusmarietajos ! Sekulan orrelakorik!

KRISTAU BANO LENAGO EUSKALDUN

Batzuek esaten dabe ze, euskaldunok doguzan izkuntza, odola, geneak, kultura... danak dirazela euskaldunak; baña, erlijiorik ez. Ori ez dala euskalduna.

Bai, aspaldian mito berriak sortzen asiak dira eta orixe da mito berri bat. Egia ez izan arren, esan da esan eta aizkenerako jendiak sinistu, arrazoigabeko esaera ustel ori. Hitler'ek ere orrela jokatzen zuen.

Odola, Rh- eta orrek euskaldunak doguz.

Orain, esaten dute jakintsuek, asieran euskaldun guztiak zirela Rh-'koak. Gaur, ordea, %'tik 70'k badute Rh. Nundik agertu da Rh ori? Rh-'koek 30 bakarrik dira eunetik. Nundik aldaketa ori?

O odol-mota ere geienok doguz.

Asieran danok, orain erdiak. Beste A odol-mota badute %'tik 45'tek. Nundik agertu da A ori eta noiz-edo-noiz azaltzen dan B mota?

Ezin ukatuko dozu euskera garbi-garbia ez dogunik!

Badegu euskerean arri-aroko zenbait berba, eta latiñetik, zer esanik ez. Pillo galanta... Euskera bat izan arren, naaste-borraste aundiak daramaz berarekin.

Baña, ori ez dozu esango euskal-kultura gaitik?

Camille Julian, idazle euskaldun arazoetan jakintsu frantzesak onela dio: Gizaldietan zear gertatu diren kultura guziak diraute euskaldunetan. Bein gauza bat ikasi ezkero, ez dute sekulan galtzen. Gizakien museo bat bezela dira euskaldunak. Txapela ez zuten euskaldunek asmatu, ezta pelota ere; baña bein eurok erabili ondoren, biak dira euskaldunak: Pelota euskalduna (pelota vasca), txapel euskalduna (beret basque, boina vasca)...

Demoniñua!

Gure aurrekoek azti-zaleak edo majikoak ziran, eta kobeetako paretetan utzi euskuezan euren majiaren agerpen miragarriak... Geroago, askoz ere geroago, indoeuropeoak eta zeltak euren gazteluak geure mendi-gallurretan jaso ondoren, gurekin egon ziran, milla urte baño geiago, bai Araba'an eta bai Nafarroa'n; eta la-reun edo geiago, Bizkaia eta Gipuzkoa'n. Eta, animismoa erakutsi ziguten.

Zer da animismoa?

Mundu onetako indarrei anima bat ipintzea norbait ba' lira bezela, eta ez gauza eta indar utsak; orixe dezu Animismoa. Ori egin zuten batez ere Eguzkiakin, Illargiak, Itsasoakin, Zeru Urdiñakin, Baso eta Iturriekin... Ortik sortu ziran lauburuak eta abar.

Nik uste neban lauburua euskal utsa zala.

Beste askok ere bai. Gogoratu, ordea Hitler'ek lauburua artu zuela bere arraza eta etniaren ezaugarri. Ikur oiek India'n ere badira.

Geure zapaltzailleek ekarri eta guk iñuxente, iñuxente geureak ba' lira bezela artu.

Bear ba'da geuretako asko ere aien arrazakoak izango gera erromatarrek guregana eldu ziranean, galdu egin bait ziran errien artean izkutaturik edo. Beste alde batetik begiratuta ere, gure artean ainbeste ugaritzen dan A odol-mota, ori eurena da.

Eta, erromatarrek zer ekarri euskuen?

Kultura-gai asko eta erlijio berriak ere bai. Guk geure artean oraintsu arte erabilli izan ditugun ilkoeri buruzko oitura zaar-zaarrak, eurak ekarriak ziran.

Ba omen dagoz Pirenee mendietan aien garaiko arlosak eta arrizko aldarak be.

Erromatarrek ekarritako santuenak (Marte, Silvanus, Monini, Diana, Mitra...) eta geureak ziran animali santuenerak (Aderbeltza, Beigorritxo, Aritxo...) eta abarrenak.

Orduan magoak izan gara lenengo, gero animistak eta totemistak, gero erromatarren erlijioakoak zenbait oiturretan... Mari galdu dogu baztarren batean.

Geure gaurko ipuiñetako Marik beregan ditu erlijio guzti oien agerpenak: Mari bera da zeru-indarren nagusi, berak artzen ditu animalien itxurak, aginduak baditu eta saria eta zigorra ere ematen ditu, baditu bi seme (Atarrabi eta Mikelatz) onaren eta txarraren irudiak...

Bera degu bere aurrekoen bilduma osoa.

Eta, kristautasuna?

Erromatarren bideetatik etorri zan gurera, auen erlijioraren ondoren eta milla urte baño geiago gaudituz dituzte gure artean. Marxismoak ez du beste orrenbeste iraungo.

Orduan, euskalduna zer da?

Guztien kopurua. Kristautasunaren milla urteak kentzen ba'dituzu, erromatarren beste bosteunak ere kendu bearko; baita indoeuropeo eta zelten beste millak... Eta majiaren millakak...

Ala ba'da, zer geratzen da?

Cro-magnon'eko gizona, aurrereko Neanderthal'ena, ala Homo Erectus'ena, Pitekatronpo'arena ala Tximiño'ena? Zerekin geldituko gera?

Ortan asi ezker, ez dago ezer.

MUKIAK ERORTZEN

Mukiak erortzen ari zaizkizu, gizon!

Ez bildurtu, badaukadaz geiago.

Bartolo Arropaingo

1994.eko epailak 22ko DIE WELT Alemaniako egunkarian agertutako albisteak.

Euskaldunak Europako erririk zaarrena ete?

dpa LONDON- Espainiatik iparraldean eta Frantziatik ego sartaldean bizi diran euskaldunek orain dala 18.000 urtetik ona erri talde berezia osotzen dabe. Au berau Bartzelonako Unibertsitateko zientzilariek DNA dalako gai genetikoari egindako azterketen bitartez idoro dabe. Britania Aundiko "NEW SCIENTIST" zientzia aldizkariak aditzera emon izan dauanez, euskaldunak, Pirinietako aranetan askotan bizitokiz aldatu daben arren, Erri lez, barriz, Izozte Arotik ona beste erriengandik urrunduta bizi izan dira.

Iniaki Martiartu

1994.eko epailaren 23

ARROTZ-GORROTOKERIA

ZER DAN

Aspaldiotan danon buruan dagoan berbea da. Danok entzun doguz, gitxi-asko, beste lurraldeetan erbestetarren aurkako ekintzek sortutako egoera larri-larriak eta, zoritxarrez, sarri askotan, damu-damugarriak be. Arrotz-gorrotokeria edo xenogobiaz berba egiten dogunean, gogamen orokor bateri buruz berba egin daroagu. Arazo sakon bateri buruz egin oi dogu berba. Nik neuk, oraingo onetan, oi dan langoetan aitatzen ez dogun arrotz-gorrotokeria mota berezi bateri buruz idatzi gura neuskizu. Inoiz aitatzen badogu aitatu, inork ez entzuteko ran, badazpadan be, bildurrez edo esamesaka aitatzen dogu. Arean da: EUSKALDUNOK EUSKERAZ BIZI-GURARIA EKINTZETARA DAROAGUNEAN JASATEN DOGUN XENOFOBIA. Demokrazia, indarkeria, eritxi-zabaltasuna eta bakea berbek, aspaldiotan, ain erabilitako bestean igatutako gogamenak dirudie... Ain zuzen be, geien erabilten dakien berba orreek dira begirunerik gitxien dautseenak.

EMEN

Treanean etxera goazala, beti lez, geure artean euskeraz berba egiten dogu, gure izkuntza da eta! Alboko andra apainduak asarre bizian, bekokiluna ipinita, begiak urten bearrean daukazala, dirausku: "ez dakizue, mutilok, euskeraz berba egiteak ez dauala besteenganako begirunerik erakusten?"

Gu, zurtz eginda, alboetan jesarrita dagozanen begiak guregan nabaritzen doguz, okerkariaren bat egin izan bagendu lez.

Bearlekuan, barriz: "Nekatuta nagoz ulertzen ez dogun izkuntzea entzuteaz. Espainian gagoz, kontxo! Emen agintzen dauana Espainiako Oinarrizko Legea da, eta ki-to! Espainian espaineraz!"

Gu, barriro be, zur eta lur, zoratu bearrean ete gagozan!

Eta oneek lango abar luzea: 1994. urtean bizi gara, Euskalerrian.

GAUZA MINGARRIA

Oneen antzerako bitxikeriak, batzuetan, idatzitakoak baino gogorragoak, mingarriak bestean iraingarriagoak, beztunik txarrenaz esanda, jaurtigita, entzun eta jasan bear izan, izaten eta, ziur nago, izango doguz luzaroan,

oraindikarren, entzundakoak norbera bero-beroan edo zer erantzuteko edo askotan, edozer egiteko aginean jartzen dabela.

Zer da xenofobia, arrotz-gorrotokeria, ori baino? Gureganako gorrotoa, gelditu ezineko dirudiana. Bildur gara. Non geratzen dira, bada, askoren ago-miinetan ain igatuta agertzen jakuzan Demokrazia, indarkeria, eritxi-zabaltasuna, bakea,..., berbok, errealidadeok?

NON SALATU?

Ez ete dogu guk, gure Lurrean, era bateko, mota jakin bateko jazarpena jasaten?

Basakeria orretatik nork aldeztuko gauz? Espainiako dalako Oinarrizko Lege orrek? Bai, jai dogu! Orain arte aldeztu gauezan lez!

Euskeraz idazten daben aldizkari-egunkarietan izan ezik, non salatu geinkez bada, larregikeria oneek? Salatu egiteaz naikoa balitz lez!

Norengana jo geinke laguntza bila? Espainiako Oinarrizko Legeak atarako ete gauz zulo eta zuzengekeria baltz oneetatik?

Bere egalpeetan bizi diran ainbeste sabel-eskertu eta txontxongiloen koortek? Bai, jai izango dogu!

ERAKUNDERIK EZ

Orain artean, ez Ego-Euskalerrian ez eta Iparraldean be, ez dago erakunderik euskaldunon izkuntzea, nazino eskubideak bermatu daikezanik. Eta au berau egi lazgarria besteko biribila da!

Guk egunean-egunean bizi bear dogu eta egunean-egunean jasaten doguz destaina eta baztarkeria orreek, gure Lurrean, Biotzean, min, min sakona, min sarkorra egiten dauskuela!

Arrotzek, benetako erbestetarrak eta baita gutar askok, gu geu gure Errian, gure Ama-Lurrean arrotz biurtzen gauezala! Au itzela!

Demokrazia, indarkeria, eritxi-zabaltasuna, bakea... itz utsalak, itz ustelak. Emen guretzako zuzentasunik ez da oraindikarren jaio. Eta dirudianetik, ez eta jaioko be.

Au da benetan **XENOFOBIA**, guk jasan bear izaten doguna. Eta nik ez daukat orrentzako konponbiderik ez eta osagairik be!

Iniaki Martiartu

TXANGO ATSEGINA

DEBA ATA MARKINA

Martiaren 26an. Zapatua, Debara joateko eguna. Jain dagizun, gu Euskerazaleok ara joan oi gara. Ez dakit noiz sortua dan batasun au, baiña urteak dira eta illero-illero goaz ara, euskerearen alde lan egitera, bazarra, estaibadak, erabagiak, akatsak aztertu, eta abar egin ondoren bazkaria euki oi dogu, eta gero etxerantz, Gu Mutriku, Ondarru Markiña'tik zear etxera.

AURRERA

Oraingoan, bidez geunkala-ta, Amoroto'ra joateko asmoa artu genduan. Eta Lekeitiorako bidean, Armiña baño lenago, Atxurra-gaiñean itxi Lekeitiorako bidea eta Ballestegirakoa artu genduan, ni umetan sarri ibilia.

Ementxe artu oi genduan guk geure baserrira igoteko zear bidea.

Aurreratxo joan eta or genduan Beko Errota be: orraxe ekarten genduan guk artoa nai garia uruna egiteko.

Aurreratxoago joanik, or genduzan iru etxe, Ballestei ibilbide onen asiera, Ikan errota lenengo, Ikan ezker eta abar.

Lenengoa eun eta ainbeste urtekoa, erre egin zan askenengo suetean; baiña bertan bizi diranak, oso jatorrak, dirua ondoen eralgita nobere bizitza barriztuten egoala-ta, barriri barriztu egin dabe oso ederto; zaararak eta gazteak bizi dira bertan guztiz jator eta bizi naitu. Emetik gora joi dogu, Txopitte, Atxuriarte eta inguruarteko onetako biztanleok.

TONTORRERA

Guk ezkerretik artu gendun, Bellestei zear, erreka ez erreka; emendik ez urrin, oraintsu egindako zarama tokia aurkitu genduan, polito eta ganoraz egiña; eta gu aurrera erreka ta baserri ondolik; emendik joaten giñan gu Santa Eufemira eta beste toki entzutetsuetara eta ermitako jai aundietara.

Lenago toki onetan zear joatea, nai ta ezker-eskuma etxeak egon eta piñu-tantaiz josita, etzan errez andik ibiltea. Gaur garbi dagoz toki oneik; suetea izan zaneetik garbi dago guzti au; etxeak be Enpan Goikoa eta Bekoa or ziran len, gaur... Gu beintzat, ba-giñoiazan aurrera, eta gorantza igonaz oraintsu egindako bede zabalaz tontorrerantza eldu giñan.

AMOROTO'RA

Emendik bide bi, bata Gizaburuaga'ra eta bestea Amoroto'ra. Beerantza artu genduan, baiña zatitxo baten ibili ta gero atzera jo genduan, guk Amoroto'ra jua naia gendulako eta ez Gizaburuaga.

Gora jo gura gendun eta Amorotorako bidea artu gendun.

Ainbat etxe, eta azken-Arretxika, Santa Barbara ermitapean gengozan, eta nik esan neutson txoferrari jo ezkumatik, orra gora igon bear dogu, Santa Barbarari agur egitera eta an giñan beingoan. Toki zoragarria ur tokia eta santa Barbararen eleizatxo.

IKUSPEGI EDERRA

An ordu erdi bat egin genduan, ikusmiraz eta ikusmiraz. Zelako toki ederrak dagozan gure errian ! azpian ur-ur Amoroto erria, etxez bete bete zuzuriz ta dotore, urrutik Lekeitio ta kantauri itxaso dizditsu ta bizi!, Amoroto-bean eleizea guk bateoa artu genduna eta gaztetan ainbeste otoitz egin genduna.

Oraindiño-be larogeta bost urte ditut, ara noanean, beti joatenaz eleizara, jaunari otoitz egitera.

San Martin, bertako zaindaria, nirentzat Santu aundia da, mirari egille aundia, bertako jentea ondo zaintzen dakiana. Eta bertakoak Santa goratu, ta gurtzen dabenak.

Nik eta besteak beste ainbeste egiñik, pozez etxeratu giñan.

AITA ONAINDIA

KRISMOIAK

NOIZ ETA NON

Izan dira Euskalerrian, erromatetiko arri-zaarretakoren batean krismoï ugari ikusi nai izan duten ikerketalariak, baiñan arri oietan krismoïrik ez dago. Gaiñera, ikusi dugun lez, krismoïak IV mendean gerokoak dira. Gure arri zar oietako irudiak berriz, I, II, eta, geienaz, III mendekoa. Idazkiak, bai, arri oietako idazkiren bat edo beste izan daiteke IV mendean azkenaldikoa, eta baita geroagokoa ere, baiñan irudiak ez. Len ere esanik utzi dugun bezala, irudiak, III mendean aurrekoak bait dira.

MUNGIALDEAN

Buztiñ-gosizko ontzietan bai. Antziñako olerkari yayo arek Inperatorearen ikurriñetan ikusi zuan ura bezain dizdiratsua agertuko zaigu, ontzi oietako batean, krismoï dotore bat (1).

Naiz orrelako arri-olak beste tokietan ere agertu izan, orain emen aztertuko ditugunak Bizkai-n aurkituak dira, eta danak izan ditugu batek edo bestek kristautzat artuak.

Bizkai'koak dirla esan dut. Baiñan zerbait geixeago ere esan bearke nuke: ain zuzen Bizkai'ko txoko batean izan dirala aurkituak, bat edo beste izan ezik. Txoko orrek, Mungi du biotza, eta bere lau ertzak urez mugaturik agertzen zaizkigu: iparrean Itxasoko urez. Beste iru ertzetan iru ibai dituzten muga: egoan, Ibaizabal, sortaldean, Oka-Urdaibai, sarkaldean, Nerbion.

ZENBAT

Zenbat diran? Bai beintzat ogeiren bat, oraiñarte agertutakoak. Agertzen ari bait dira orain ere, eta agertuko bait dira geiago. Aurrenekoa, 1.777 agertu zan.

Oraintze agertu berriak ditugun oietatik geienak, beren azterketa amaitzeke daukate oraindik. Baiñan danak, lengoak eta oraingoak, itxura ber-berekoak omen dira.

ESKOLEA

Itxura berdin ori, danek edergaillu berdiñak erabiltzetik datorkie; eta edertze-gai oiek danak era berean eratuak izatetik. Orrek lantegi edo taller batetik sortuak izan dirala, eta garai bat berekoak dirala, esan nai du. "Eskola" bat bereko giroan landuak dirala.

"Eskola" orrek erabilli oi zituana apaingailuak oso landerrak eta errezak ziran: Guretzak ugari, "triskel" eta "tetraskel" edo "iruburu" eta "lauburuak", sei orriko lore xumeak, borobilkiak, kanporuntzko-izpidun kurpil bat edo beste, zerra-ortzeko lerroak, eta apainketarik gabeko lerro uts billutsak.

MEDEAK

Apaingailu oiek danak ez dira, jakiña, arri-ol guztietan agertzen; bakoitzean, bi, iru edo lau baizik. Eta batzuetan, bat bakarra.

Edergaillu oiek, jatorriz, emen bertakoak omen dira. Agian keltiarrengandik ikasiak izan omen daitezke.

Ziurtasun aundiz esan dezakegu gaur, arri-ol oiek noizkoak diran, Ferreira de Almedo'k egin duan lan bikaña ezker (2).

Jaun orren ikerketa sakonak oiñarriztat artuz, atzipeturik ibiltzeko bildurrik gabe aurkeztu dezakegu azalpen irukoitz au:

1 - Krist'aurreko I mendean, alderdi auetan, orrelako arri-lanketarik ez zala egiten;

2 - Krist'aurreko I mendean asi zala emen arri lanketa ori;

3 - Bigarren mendean izan zuala bere arorik oparoena;

4 - III mendean asi zala ezabatzen, eta mende ortan bertan ezabatu zala, ordurarte beraiek bete oi zuten lekua, erromatarrek ekarritako irudi berriei utziz.

5 - Beraz, orrela ornitutako arri-ol oiek I'go edo III' goak dira.

- (1) "Vexilla Rgis" ereserkia idatzi zuan "antziñako olerkari" ura, Venatius Fortunatus izan zan. Apaiza. Jaiotzaz italiarra eta bizitzaz galitarra. Bada Poitiers'ko gotzia izan zala dionik ere. Olerki ori, 569'ko Azaroaren 19'an abestu zan aurreneko aldiz, Poitiers'en zegoan Gurutze Donearen Lekaidetxean, Sortaldetik II Justino inperatoreak bidalitako Guretze Donearen erliki bati ongietorria ematerakoan. Doneen bizitzak eta Doneen eta Doneen omenez olerkiak idatziz, ospetsu egin zuan bere izena Venantius Honorius Clementianus Fortunatus zeritzan apaiz arek.
- (2) "Estudos de Cultura Castrexa (Kastroetakoa) e de Historia Antigua de Galicia. Arquitectura e arte castrexa. A sua licao para os fenomenos de assimilacao a resistencia". Azkeneko idazlan au, Eusko-Unibersitateko "Asimilacion y resistencia a la romanizacion en el norte de Hispania"n daukazu. Bilbao, 1985.

LATERRIAREN EGOEREA

Gure aurreko iru idazlanetan, Gizarte-Auzia aztertzen alegindu giñan. Izan be, egoera ez zan baikor taatsegin-tsua. Langille ta ugazabaen alkar ulertu-eziña alde batetik eta bestetik Jaurlaritza berak erabagitako araudi ta baldintzak arr-eraziko dabezala agertu; alperriko lan-uzte orokot bat uts urtenda; ta ustelkeria dala edo ez tala zurrumurru ugari nun-nai: auxe zan, laburki esanda, Gizarte Auziaren ikusten genduan egoera larria.

Au dala-ta Lege Biltzarrean, aurkako alderdiak eraginda, Laterriaren egoerari buruzko eztabaida bat antolatu zan.

Eztabaida oneik erritar artean ikusmin aundia ta alderdi agintarian kezka ta buruasteak eragin ebazala, argi ta garbi ikusten zan, egunkarietan irakurrigeinkezan azalpenetan.

Aukeratutako eguna, jorraillaren 20 ain zuzen, eldu zanean Jaurlaritza-buru dan Gonzalez jaunak, naizta barranean kezkatu izan arpegi ona egiñez, egundoko salaketak entzun bear izan ebazan zein alderdi batetik zein bestetik.

Laterri maillako alderdiak, batez be jaularitzarako aukera edo gai izan leitekezala uste dabenak (PP eta IU), irizpen zorrotz eta garratzak ager-erazi ebezan. Alderdi abertzaleak (EAJ eta CiU) barriz, txarto dagoana gaitzetsi ta gero, ez ziran agertu ain gogor eta zelan edo alan, irautazuna gizartentzat ongarria dala-ta, larri-aldia gainditzeko laguntza eskaiñi eben.

Legebiltzarrean izandako eztabaida ontan, Gonzalez jaunaren ta alderdi guztietako ordezkarien arteko entzun-erantzunaren ondoren, ez da erabaki ezer; bear bada larrialdia len baiño txartoago geratu da. Baiña len zalantza ta zurrumuru bezela erabiltzen ziran auziai buruz zertzelada barriak ezagutu al izan doguz eta, urratsez-urrats, argia egin eta auzi oneik orain berarizko izenaz deitzen dira.

Filesa zarata aundiko auzia dogu. Alkarte onek eta PSOE'k diru-arreman edo finantzaketa-gaietan izan dabezan gora-berak argitzeko, PP alderdiak batzorde-ikertzaille bat izendatzeko eskatu eban. Legebiltzarrak aitaturako eskaera, CiU'koen laguntzaz, ez eban onartu. Beren orde, alderdi guztien finantzaketa atertzeko, batera etorri diran.

Mariano Rubio Espainia'ko Diru-etxean buru izan zana. Ara emen beste auzi itsusi bat. Bere eskuetan ebazan argibide edo barriak, norberaren onuran era billiaz aberastea. Emen bai izendatu zan ikertzeko batzorde bat zer

gertatu zan, zeatz-meatz, jakiteko.

Roldan'en auzia be ez da makala. Txapel-okerdunen zuzendaria izan eta lege guztiak ausi ondoren, espetxeratu baiño leen, anka egin eta ondiño bere iges-lekua nun dagon iñok ez daki.

Iñora joan barik gure errian, emen berton, Azpiegitura eta Osakidetza auzi lotsagarritzko biren izenak, zoritxarrez, sarritan entzunikoak doguz. Gaitzakari guztiak asargarriak dira, baiña gaurko ain larri dan lan-egoeran iruzurraz lan tokia iñori ostutzea kalte neurtu-eziñezkoa da. Ba orixe gertatu jake 581 leiakidei, Osakidetzan egindako azterkizunetan.

Ba dagoz onelako edo antzeko beste auzi asko. Toki au ez da egokiena auzi oneik zabalki erabiltzeko, baiña aitatu doguzanak uste dogu naikoa dirala, gaurko gizarte-egoera zelakoa dan adierazteko. Bere izena ez da asmatu bearrik; aspalditik toki guztietan entzuten dana da: US-TELKERIA.

Ipar-itxasoetan dabilzan ingeleseraz iceberg esaten jakezan izotz-mendiak bezela, ba-dirudi ezagutzen diran auziak ur gaiñetik ikusten diran tontorrak bakarrik dirala, eta jakiña da azpitik daroezanak askoz aundiagoak dirala. Izan be auzi barriak eten-gabe sortzen dira.

Oba izango litzake aurretik arau argi ta zorrotzak jartzeari onelazko ustelkeriak sortu ez daitezkan gero aienez beterik ibilli barik.

Orain, bat-batean, alderdi guztiak alegintzen dira azaltzen, aztertu ta ikertzeko batzordea antolatu bearrekoa dala, ustelkeriari aurka egiteko. Danok garbi ta lotsakor agertu gura dabe.

Alderdi batek itzaleko asarrea erakutsi dau Osakidetza auziari buruz, errudun edo nastuta dagozanen izenak zerrrenda baten argitaratu dabezalako, euren kide edo zaletasuna adieraziz.

Legeak eta aitaturako batzordeak, egoki ta onak izan leitekez ustelkeria zuzentzeko. Baiña onezaz gaiñera, beste bidetik ekin bar da gaitza sustraitik atara gura ba'dogu. Gizakia etika arauetan ezitzen ez ba'da, ez da sortuko ustelkeriaren aurka benetako borroka. Azken bate, biotz barronetik urtetzen dira bai asmo onak, bai asmo txarrak.

Benetako kristautasuna gure biotzetan berotzen ba'dogu, ustelkerirako lekuri ez da egongo.

IDIGORAS'TAR JOSEBA ANDER

EUSKERAREN IRAKASKUNTZA

Euskeraren iraupena berba egitean, erabiltean bada-gore ere, bearezkoa da zabaltzea iraupen ori ziurtatzeko. Zabaltze orretan irakaskuntzak daukan zeregina oso aundia da. Ikastolak, eta gaur egun eskolak ere, umeei gure izkuntza irakasteko leku egokiak dira, edo biurtu egin dira eskolen kasuan, beste edozein gai edo asignaturaren moduan irakasten dalarik.

Egia esan, euskeraren munduaren inguruan gabilzanok, izkuntza oneri garrantzi aundia emon arren, eskola askotan soinketa, doinu edo antzeko gaien maila emoten jako, "maria" deiturikoen bestekoa ain zuzen. Eta ez eskoletan bakarrik, sarritan irakaskuntza "administrazioa" dalakoaren aldetik ere, ez dau tratu oberik jasoten, baina bearbada dagoen arduraduna egonaz ez da arritzekoa izango.

Dana dala ez dira umeak euskera ikasten dabilzan bakarrak; nagusiagoak ere orretan jardun dabe eta diardue, aspaldion zenbatekoa gitxitu egin dan arren.

Jakina, irakas metodoak edo erak, aurreko kasuan eta azkenengo onetan guztiz desbardinak izan bearko litzatekez, eta ez adinagaitik bakarrik, nagusi askok eskolea aintzina itzi ebela eta gramatika gauzak erdi (edo osorik) aaztuta euki daikezala kontutan artu bear da eta. Onekaz entzumena eta mintzamena landu bearko litzatekez batez ere, au da, belarria egin. Dagoen urrutasuna jagonaz, doinuaren irakasketagaz konparatu geinke: Belarriz edo solfeoz ikasi txistua joten? Biak erabiliz lortuko diren arren emaitzarik onenak, bietariko batek uts egin ezkeru, bestea indartu bearko dogu elburua lortzeko. Itsuak nekez irakurri aal izango dau paperetako doinu idatzia.

Aalegin guztiak eskertzekoak diran arren, batzuetan kontrako lana biurtu daitekez. Euskera irakastea ez da txantxetako gauza, edozelan egin daiteken lana. Beste sasoi batzuetan, barra itzela zanean, zaleak gitxi eta irakastearen arriskua aundia, ainbat gauza, errakuntza eta anka sartze parkatzeko modukoak ziran, eta bearri-zanaren izenean parkatu egiten ziran. Baina gaur egun, euki daukaguzan baliabide teknikoak eta guzti, orduko beste astokeri irakasten da.

Izan ere, orduan baino "jakintzu" geiago dagoanez, eta maisu bakoitzak ber "liburutxo" daukanez (eta ez badauka sortu egiten dau), betiko euskaldun bateri belarriak zulatzeko moduko gauzak irakasten dira: "Min egin nauzu" edo aginte era irakasteko onelako esaldia euskeratu arazi "A ver si te estas quieto de una vez".

Gramatikan kokoteraino murgilduta dagoan ikasle batek, zein mundutan sartu dan galdetuko leuskio bere buruari, itzelezko "kortoziarkuitoa" sortuz bere barruan. Baina belarria lantzen dauanak, bereganatu egingo dauz alako gauzak. Bereganatu, erabaili eta zabaldu gainera.

Arazoa larriagoa izan leiteke ikasle orreek biar egun umeen irakasleak izango badira, alako gauzen zabalkuntza askoz aundiagoa izan leiteke eta. Eta ez nabil gertatu leitekenaz berba egiten, gertatzen danataz baino. Au, zuk zeuk irakurle, eta nik sasi-idazle, eta danok euskaldun, ordaintzen dogun diruaz egiten da; irakasleen eta ikasleen alagorak eta erabilten dabezan baliabide teknikoak ordainduta, danon artean ordainduta, eta, teorian beintzat, Eusko Jaurlaritzaren kontrolpean.

Zertarako balio deuskue bideo, T.V., ordenadore, diapositiba, fotokopiadora eta zeruko satellite guztiak, benetako orduan irakasleak uts egiten badau? Ezin dogu gaur egun aalegina bakarrik kontutan izan, bestela betiko errakuntzetan jausiko gara. Beste gauza batzuetan salneurriaz gain "kalitatea" begirutzen bada, zergaitik ez euskeraren irakaste eta erabileran?


Erabilerari buruz zer esan asko egongo litzateke, irratieta, T.V.-an eta beste komunikabideetako langileek erabiltzen daben idazkera eta aoskera ikusiz eta entzunez. Ziurtzat jotzen da aurkezle eta idazleok preskakuntza bat daukela, eta gainera komunikabide orreetan euskeraren teknikoak izango direla errakuntzak zuzentzeko eta erabilera obetzen jardungo direnak. Beraz, zelan 7ulertu belarriak gortu eta begiak itsututeko moduko gauzak ain sarri urtetzea aipatutako komunikabideetan?

Kontuz! Euskeraren "gaurkotzea" ez daigun itzi sasi-maisu eta irakasle "jakintsuen" eskuetan, sarritan onek ikasle aurreratu asko euki daikiez eta.

Enrike Itxasalde




ZELAN LAGUNDU



EUSKALDUN BAIZIAIENTZAT

4S 46
 44 .41 .d7
 42° .4f 48 SO SZ
 40° .e Sf .S,
 C2 61
 34 3S 24 23 .ae 6i .54
 30 .19 .28 .27 .64 .55
 13 . J4 .fs f8 ar
 vz .f5 fi 5
 Ji .8 .6
 io '9
 2°
 gr .84
 82 81 78
 80 . 79
 cn c7 .L6
 3 . t9 0
 .rr
 i r 16 .''
 r.s .7.)

"1"-etik "86"-raño lotu egizuz zenbakiak, marrak egiñaz eta irudi bat agertuko jatzu.



Nundik joango dira poxpolo onek zigarroa biztuteko?



Saltzaile oneri ortz-errazto bat eta maratilla galdu jakoz eta ezin dauz aurkitu. Lagunduko dautsozu zuk?

KARMELE

ZOZOMIKOTEAK

Euskalerrietan Martzoa ill gogorra izan oi da; baiña, kalte aundirik egiteko Apirillaren laguntza bear.

Arazo oneri buruzko esaerak badaude gure zaarren artean, Zozomikoteak, alegia. Martzo zezen gorri batekin oso asarre omen zebillen. Zergaitik asarratu zan? Orixe bai ez dakigula zergaitik. Dana dala, Martzo jaunak, asarrearen-asarrez, zezena akabatzea erabaki zun.

Eta zer jokabide artu zuan Martzok orretarako? Mendi-zelaiak elurrez ito. Ez zan bela-izpirik ere ikusten iñun. Goseak ilko zuan zezena.

Baiña, beti izaten da baiñaren bat, zezenak arte zabal baten azpian gorde zuan bere burua, eta arte-azpiko belarrakin eutsi zion biziari, ezta ta larri, bizirik beintzat, Martzoa amaitu zan arte.

Zezena esku-artetik iges egiten ziola ikusirik, Martzok bi egun t'erdia eskatu zizkion Apirillari zezena akabatu arte...

Egun oiek dituzu Zozomikoteak.

Goierrri aldean beste era batera esan oi dute eta onela da:

Martzo artzai batekin zebillen asarre. Artzaiak eun ardi eta aari bat omen zitun. Bera, berriz, begi-bakarra zan:

Martzoa eta Apirilla alkarrekin ziarduten izketan. Apirillak esan:

A Martxo, Martxo...!
Diat ezker gaizto...

Eta Martzok erantzun:

A Apiltxo, Apiltxo...!
Ekatzak egun bi
ta erditxo,
artzai orri
kendu ioatzen
eun ardi ta arie
eta beari
eskerreko begie...

Eman ziozkan egunok eta orduan Martzoak izugarriko ekaitzak eta ujolak sortu-arazin zituan. Ur oiek eun ardiak aurretik eraman omen zituan leize-zulo batera. Artzaiak aaria lepoan artu ta bazeramakian uretik aparte. Baiña, aariak aldamonera begiratzean, sartu dio adarra artzaiari begi bakar artan...

Gelditu zan artzaia begi gabe.

Zozomikoteak eguraldi txarra dakartela berekin, esan oi da arrezkero.

ANES

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratze-ko erea. Etixerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dau-tzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEAren izena ipiñi ta 1.500 pezeta di-rala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

B IZKAITARRAI BIZKAIERAZ




Eusko Jaurlaritzaren

Laguntzaz.

Kultura Saila

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*

IUA — **BBK**
Bilbao Bizkaia Kutxa